

Kostu egitura

Gure proiektuaren kostu garrantzitsuenak hasiera batean zientzilarien lana eta makinaria izango dira. Izan ere, horrelako proiektu berritzaile batekin hasi ahal izteko egin beharreko lehen gauza ikerketa sakon bat da; zein material erabiliko diren, nahi dugun produktua eskuratzeko egokienak zein izango diren, ekoizpena eta errentagarritasunaren arteko balantza zein materialek ziurtatzen duten eta batez ere osatu nahi ditugun oihalak zein nahasketaren bitartez lortzen diren.

Zientzialariek egin beharreko lan garrantzitsua alde batera utzita, makinariak ere pisu ekonomikoa izango duela aurreikusten dugu laborategi bateko makinak eskuratzear gain, gure produktiorako beharrezkoak direnak erosi (edota sortu) behar izango ditugulako. (Makina berriak sortu behar izatekotan kostuek gora egingo lukete ingeniariak ere beharko genituzkelako.) Makina hauen kostuen eskutik beste nolabaiteko kostuak datoz ere, batik bat, argindarra, ura edota gasa. Hauek gabe gure fabrikak ezingo luke ekoizpena aurrera eraman gure oihalen sorkuntzan energia ezinbestekoa baita.

Gainontzeko enpresa guztiek bezalaxe langileen soldata, aseguruak eta alokairua bezalako kostu finkoak edukiko genituzke eta baita kostu aldakor batzuk ere: garraio elementuak, zergak, aurretik aipatutako zerbitzu batzuk...

Erabiliko dugun estrategia ekonomikoa honakoa da. Lehen inbertsio bat behar izango dugu hasteko eta horretarako bazkideak bilatu beharko ditugu. Lehen inbertsioa bi milioi euro ingurukoa izango dela uste dugu zientzilari taldea eta haiek behar dituztenak ordaindu behar baitira alde batetik eta bestetik enpresa sortzeko beste atal batzuetan ere dirua beharko dugulako. Gastu altu hauek direla eta hasieran gutxi ekoitziko dugu, arriskuak murriztu eta aldi berean gure produktuari eksklusibitatea emango diolako honek.

Gastu hoiek ordaintzen hasi eta egonkortasuna lortzen dugunean, gure produktuaren zabalkuntzan hasiko gara eta beste mota bateko produktuak ekoizten hasiko gara. Bigarren produktu hauek maila ekonomiko guztientzako eskuragarriak izatea dugu helburu baina hala ere, luxuzko edo maila altuagoko produktuak ekoizten jarraituko dugu horietatik lortutako etekina altuagoa izanez, hoiek baitira gastu gehienak ordainduko dituztenak.

Hau guztia kontuan hartuta, gure proiektua geroz eta errentagarriagoa izango da eta lehengaiak ordaindu behar ez ditugunez amaieran gure kostuak oso baxuak izango dira eta etekinak altuak.